

## ZERUA GRIS DAGO


Testua: Isaak Martinez

Irudiak: Liébana Goñi

### X. ETXEPARE SARIA (2016)

ISBN 978-84-7681-955-5. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 29 x 21 cm. 38 or. 14 €



Zerua grls dago. Plaza, txurl. Txuria bakarrik.  
Hutsik.

Eta isiltasuna.

Elur maluten isiltasuna [...]

**Zerua gris dago** albumean adiskidetasun baten sorrera kontatzen bazaigu ere, generoak eragindako aurreiritzien kontrako aldarri isila eskaintzen zaigu, laguntasunaren aldeko proposamen sotila.

Liburuak zeru grisaren azpiko zelai zurian aurki daitekeen bizitzari gorazarre egiten dio, poliki eta kontu handiz, elur maluta elurtzara erori ohi den eran, eta hoztasunean lagun bat izateak ekar lezakeen konplizitate koloretsua erakusten digu, berdin dio lagun hori neska ala mutila izan.

Testuaren eta irudiaren —gutxitan bezalako— oreka nabarmendu nahi dugu, apenas aditzik duen testu finaren eta finezia handiz eraikitako paisaia eta pertsonaien artean; ematen du isiltasuna entzun egiten dela, elur giroak koloreak indartu egiten dituela.

**Zerua gris dago** lanak elurraren isiltasun mutuan murgiltzen gaitu, gainerako doinuak aditzeko. Elurretan

oinak sartzeko gonbita egiten digu urrats-soinuekin gordeketa jolasteko.

Irudiak oso aberatsak dira erabilitako kolore zein ukiarengatik eta erakusten dituzten xehetasunengatik. Horiek guztiek irakurketa ezberdinak ahalbidetzen dituzte eta erakargarri egiten dute historia. Gainera, planoak aldatzen direnez, erritmoa mantendu egiten da eta irakurlearen arreta mantentzen da.

Lanak hitz solteak, esaldi laburrak, onomatopeia esanguratsuak eskaintzen dizkigu irakurleoi, orriz orri, irudiak lagun eta erritmo pausatuan, bi protagonisten jokoan parte hartzeko.

- **Gaia:** ezezagunen arteko adiskidetasuna.
- **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.
- **Nabarmenezko moduko datuak:** berdinen arteko harremanak, aurrejuzku sexistak, kaleko jolasak, natura, maitasuna...

**Isaak Martinez Ortiz** (Hondarribia, Gipuzkoa, 1975)

Bere herrian institutua amaitu ondoren, Iruñera etorri zen Irakasletza egitera. Haur Hezkuntzako maisua da gaur egun eta Uhartan bizi da. Bere lanak idaztearekin zerikusi handia ez badu ere, txikitatik gustatu izan zaio idaztea eta aspaldidanik laguntzako edo bere buruarentzako ipuinak edo olerkiak egiten ditu.

**Liébana Goñi Yárnoz** (Iruñea, Nafarroa, 1986)

Arte Ederretan lizentziatu ondoren, Diseinu Grafikoan eta Publizitate Artistikoko Zuzendaritzan espezializatu zen.

Ilustrazioarekin zerikusia duten jardueretan parte hartu du, bai bakarka edota *Y Peluda* kolektiboaren partaide bezala. 2015ean *Ilunean Argi* argitaratu zuen (Denonartean argitaletxearekin), berak idatzitako eta ilustratutako haurrendako bere lehenengo albuma. Urte beraren bukaeran, bere bigarren albuma aurkeztu zuen *Malko* izenburuarekin. Gaur egun ilustrazioarekin zerikusia duten hainbat proiektu egiten jarraitzen du.

<http://www.liebanainillustration.com/>

Tel.: 948 326 535 / [soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com)

[www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)

